

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

## Afizioz aldatu

**H**ala da. Zenbaitetan ilusio apur bat galtzen du. Bizi erdia musikaren dohainen propaganda egiten eta orain nekea itsatsi zaio aldar-tean. Askotan saiatu da hurkoa kontentzitzen: doinu honek hau sentiarazten diola, letra horrek beste momentu hura gogora ekartzen... baina oharkabean burura etorri zaio urteetan saihesten saiatu den ideia hori: agian, musika ere ez dela hainbestera izango.

Nekatu egin da; mamu bat ikusi duela errepikatzen duenaren sentsazioaz unatu, inork ez baitio sinesten. Pentsatzen hasia da Iker Jimenezen deia jasoko duela edozein momentutan kasu bitxi hori telebistan azaltzeko:

– “Aurrera egiteko arrazoiak ikusten bide dituzu David Bazanen doinuen atzean”, dio Ikerrek, ondo entseatutako misterio doinua hitzetan.

– “Halako zerbait, bai, oxigenoa noten artean-edo”, arrapostua, berben artean puntu suspentsibo gehiegi tartekatzen, inoren errukia biltzeko.

– “Eta, kontaguzuz arren, noiz izan zenuen agerpen hori lehendabizikoz?”

– “*It's Hard To Find A Friend* entzun nuenean. Baina ez zait horrekin bakarrik gertatu: Conor Oberstek edo Adam Stephensek abesten dutenean ere halakoak ikusi izan ditut. Laguntza eske nator...”

Halaxe irudikatu izan du bere burua, eldarniotik ez oso urrun. Eta etsi beharrean,



ALEX LARRETXI

pasioz aldatzeko ordua dela erabaki du. Bere hurrengo afizioa, hunkigarria barik ukigarria izango dela ebatzi du, aspertu da eta, gauza abstraktuak azaldu beharraz.

Autoekin zaletuko da, adibidez: balbulak, gurpilak, olioia aldatzeko epeak, orduko berrehun eta hamar kilometro... bost axola nondik nora joateko; leihotik ere ez du begiratu, ez dio paisaiari erreparatuko, ez du zikoinarik ikusiko kanpandorreetan, hori literatura litzateke eta ez du konplikaziorik nahi. Autoak eta 1 Formula, taxuzko afizio bat behingoz. Modan dagoena, gainera. Ez da konbertsazioetan galduko eta, are garrantzitsuago dena: konbertsazioak eduki ahal izango ditu, gustuko duen hartaz...

Hala da. Azken hilabeteetan musikarekiko ilusio apur bat galdu du. Nagia ere ematen dio Bilboko Euskaldunan Wilco ikusteko aspalditxo enkargatu zituen sarrerak erretiratzek. Baina joan egin da. Kontzertua hastearekin batera konturatu da afizioa aldatzearen kontu hori ez dela horren erreza izango. Notek barruak astindu ahala geroz eta kontentzituago dago.

Saioa amaituta, autoan sartu eta etxerako bidea hartu du, barrenak aseta. Leihotik paisaiari begira doa. Gaua da baina zikoinak irudika ditzake kanpandorre bakoitzean. ■

« Halaxe irudikatu izan du bere burua, eldarniotik ez oso urrun.

» Eta etsi beharrean, pasioz aldatzeko ordua dela erabaki du

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Joateko, eta beste hainbeste itzultzeko noski. Eta hau astero. Bizia herena preso daraman

astero ditu bisitariak. Familiaz gain lagunak ere joaten zaizkio bisitan. Joan den hamabost urtetan ikusi gabea izan du azkenean lehengo astean. Ordu bete egon dira elkarrekin. Bisitariak lau zirenez, presoak guztiakin mintzatu behar izan du. Lau bakar bati begira, bakarra lauri, zenbait gai-emailek bertsolariak kantuan jartzen dituen eran. Elkarrizketa baino, galdeketa dirudi. Herrira egin dutenean soziedatera joan dira hango berri ematera koadrilari. Lehen aldiz joandakoa nagusi. Bere pozean

## Mila kilometro

berritsu, uste baino osoago aurkitu omen du. Lehen bistazoan zahartua, baina besarkada estuekin batera joan omen zaio inpresio hori. Mintzaten entzutean aldiz, forma onean. *Al día* aurkitu omen du. Ongi. Andaluziako eguraldia Galizakoa baino eraman-garriagoa omen du. Goiza patioan pasatzen du beste presoekin batera. Bakartasunean behintzat ez daukate. Gai-nontzeko denbora, bere gauzak egiten ematen omen du. Ikasten bereziki. Noiz libratuko ote duten ez daki, urrun du hori. Janda. Guk bezala. Niri, entzule soila nintzenari, norbaiten udaleku bateko egonaldia berri ematen ari zitzaizkidalda iruditu zitzaidan, hain xaloa kontakizuna. ■